



**BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU
NAGUSIAREN, EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUDEL
– EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA, FAMILIA-
ETXEBIZITZATIK BOTATZEAREN ONDORIOZ
SORTUTAKO URRAKORTASUN-EGOERAK
DETEKTATZEARI BURUZKOA, NEURRI
SOZIALAK HARTZEA BIDERATZEKO**

Gasteiz(e)n, 2013ko ekainaren 18(e)an

BILDURIK:

Margarita Uría Etxebarria andrea, **Félix Azón Vilas** eta **Manuel Almenar Belenguer** jaunak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren izenean, egintza honetarako berariazko ahalmena dituenak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2013ko maiatzaren 16ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Horrenbestez, hitzarmen hau sinatzeko lege-gaitasun osoa aitortzen zaio.

Josu Iñaki Ercoreca Gervasio jauna, Eusko Jaurlaritzaaren bozeramailea eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburua, Lehendakariaren abenduaren 15eko 22/2012 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia sailburua izendatzekoak, xedatutakoaren arabera jarduten duena.

Juan María Aburto Rilke jauna, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lehendakariaren abenduaren 15eko 24/2012 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua izendatzekoak, xedatutakoaren arabera jarduten duena.

Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearen lehendakaria, erakunde horren izenean eta ordeiz, EUDEL-en estatutuen 21. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL
CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, EL
GOBIERNO VASCO Y LA ASOCIACIÓN DE
MUNICIPIOS VASCOS (EUDEL) SOBRE LA
DETECCIÓN DE SUPUESTOS DE
VULNERABILIDAD CON OCASIÓN DEL
LANZAMIENTO DE VIVIENDA FAMILIAR
PARA POSIBILITAR LA ADOPCIÓN DE
MEDIDAS DE CARÁCTER SOCIAL**

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2013

REUNIDOS:

Dña Margarita Uría Etxebarria, D. Félix Azón Vilas y D. Manuel Almenar Belenguer, en representación del Consejo General del Poder Judicial, expresamente facultado para el presente acto por acuerdo del Pleno del Consejo General del Poder Judicial de 16 mayo de 2013, a quien se le reconoce la plena capacidad legal necesaria para suscribir el presente convenio.

D. Josu Iñaki Ercoreca Gervasio, Portavoz del Gobierno Vasco y Consejero de Administración Pública y Justicia, que actúa de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 22/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Administración Pública y Justicia.

D. Juan María Aburto Rilke, Consejero de Empleo y Políticas Sociales, que actúa de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 24/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Empleo y Políticas Sociales.

D^a Ibone Bengoetxea Otaolea, Presidenta de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL), en su nombre y representación, de acuerdo con el artículo 21 de sus estatutos.



Parte-hartzaileek erabaki dute, ordezkatzeko dituzten erakunde izenean, zordunaren edo maizteraren bizileku den familia-etxebizitzatik botatzearren edo utzarazpenaren ondorioz sortutako urrakortasun-egoerak detektatzeari buruzko hitzarmen hau sinatzea, neurri sozialak hartzea bideratzeko, eta hau

Las partes, en la representación que respectivamente ostentan, han decidido suscribir el Convenio sobre la detección de supuestos de vulnerabilidad con ocasión del lanzamiento o desahucio de vivienda en la el deudor o el inquilino tengan su residencia familiar habitual, para posibilitar la adopción de medidas de carácter social, en los términos que seguidamente

AZALDU DUTE:

Lehena.- Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legearen 104. artikuluan eta haren ondokoetan xedatutakoaren arabera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da Botere Judizialaren gobernu-organoa, eta lurralde nazional osoan betetzen ditu bere eskumenak. Halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea izango da Botere Judizialaren eta Kontseiluaren beraren ordezkari.

Bigarrena.- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 35.3 artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurraldearen barruan, Justizia Administrazioak funtzionatzeko beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomikoez hornitzea, betiere Botere Judizialaren Lege Organikoan eskumen hori Gobernuari erreserbatzeko egindako zehaztapenen arabera. Estatutuko klausula horretan oinarrituta, hain zuzen, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabide material eta ekonomikoz hornitzearen alorrean Estatuko Administrazioak betetzen zituen funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzi dira.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak Botere Judizialarekiko harremanen alorreko eskumenak ditu.

Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eskumenak ditu

EXPONEN

Primero.- Que el Consejo General del Poder Judicial, de conformidad con los artículos 104 y siguientes de la Ley 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, es el órgano de gobierno del poder judicial, ejerce sus competencias en todo el territorio nacional y su presidente ostenta la representación del poder judicial y del mismo consejo.

Segundo.- Que el Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por Ley orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 35.3 que en relación con la Administración de Justicia, le corresponde a la Comunidad Autónoma la provisión dentro de su territorio, la provisión de los medios materiales y económicos necesarios para su funcionamiento, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial. En esta cláusula estatutaria se encuentra el origen del traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones que desempeñaba la Administración del Estado en materia de provisión de medios materiales y económicos para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

Tercero.- Que el Consejero de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco tiene competencias en materia de relaciones con el Poder Judicial.

Cuarto.- Que el Consejero de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco tiene



etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen alorrean, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura osatzen duten sailak eta haien funtzio eta jardute-eremuak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraituz

Bosgarrena.- Euskadiko Udalen Elkartea (EUEDEL) parte hartu nahi duten toki-erakundeek osatutako elkarte bat da, dagozkion funtzioak betetzeko nortasun juridiko osoa eta publikoa duena, eta hitzarmenak sinatzeko eta konpromiso zein eginbeharrak bere gain hartzeko gaitasun osoa du. EUEDELen xede dira, besteak beste, udal-autonomia sustatzea eta defendatzea, elkartekideen interesak instantzia politiko administratiboen aurrean defendatzea eta adieraztea, EAEko udalen kohesioa koordinatzea eta dinamizatzea, eta udal-erakundeen espiritu europarra garatzea, Europako eta nazioarteko erakundeetan ordezkariak izan ditzaten sustatuz.

Seigarrena.- Administrazio publikoek lankidetzak-hitzarmenak egin ditzakete beste erakunde publiko batzuekin, bai eta Zuzenbide Pribatuaren arabera pertsona juridikoekin ere, Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearenak, 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zazpigarrena.- Azken urteetako krisialdi ekonomikoaren ondorioz, herritar asko betearazpen-prozeduretan daude, eta azkenean haien etxebizitzak enkantean jartzen dira eta norbaiti adjudikatzen zaizkio. Horrenbestez, milaka familia gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daude. Hori dela-eta, politika ekonomikoaren alorreko zenbait neurri hartu dira, baina neurri horiek osatu behar dira partikularrengana hedatzea bideratuko duten beste neurri batzuekin, egoera hori arintzea helburu hartuta.

competencias en materia de vivienda y servicios sociales, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, por el que se establece la determinación de los Departamentos en los que se estructura la Administración de la Comunidad Autónoma y de las funciones y áreas de actuación de los mismos.

Quinto.- Que la Asociación de Municipios Vascos (EUEDEL) es una asociación constituida por los Entes locales que voluntariamente lo decidan, gozando de personalidad jurídica plena y pública para el desarrollo de las funciones que le son inherentes, gozando de plena capacidad para suscribir convenios y contraer compromisos u obligaciones, figurando entre sus fines el fomento y defensa de la autonomía municipal, la defensa y representación de los intereses de sus asociados ante las instancias políticas administrativas, la coordinación y dinamización para la cohesión de los Ayuntamientos Vascos, así como el desarrollo del espíritu europeo de los entes municipales, promoviendo su representación en los organismos europeos e internacionales

Sexto.- Que las administraciones públicas pueden celebrar convenios de colaboración con otras entidades públicas y con personas jurídicas sujetas al Derecho Privado, al amparo de lo dispuesto en el artículo 6 Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Séptimo.- Que la situación de crisis económica de los últimos años motiva que muchos ciudadanos se encuentran inmersos en procedimientos de ejecución que terminan en la subasta y adjudicación de sus viviendas, con el consiguiente riesgo de exclusión social de miles de familias. Esto ha provocado la adopción de sucesivas medidas de política económica que, no obstante, deben completarse con otras que permitan su extensión a los particulares con la finalidad de mitigar esta situación.



Zortzigarrena.- Ildo horretan, uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez honako neurri hauek hartu ziren: enbargaezintasun-maila igotzea lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150era arte, higiezia esleitzeko tasazio-balioaren gutxieneko muga % 50etik % 60ra igotzea, eta enkantean parte hartzeko gordailuan utzi beharreko zenbatekoa % 20ra murriztea.

Bestalde, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuak, baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presazko neurriei buruzkoak, Jardunbide Egokien Kodea esaten zaion ereduak kodea onartu zuen; eta maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak, zorrak egokitzea, alojera soziala eta hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzkoak, arauan bertan xedatutakoaren arabera urrakortasun-egoera berezian dauden zordunen utzarazpen-prozesuak bi urteko eperako bertan behera uzten ditu segituan

Bederatzigarrena.- Halaber, kontuan hartu beharrekoak dira, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak sortutako Hipoteketarako Bitartekotzarako Zerbitzua, eta bestetik, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, etxebizitza galdu duten pertsonen egoera aintzat hartzen baitu.

Hamargarrena.- Egungo krisialdi ekonomikoak, hipoteken merkatuan ez ezik, etxebizitzaren errentamenduan ere ondorioak eragiten ditu. Sektorea malgutzea eta errentatzailearen zein errentariaren egoera bermatzea helburu hartuta egindako erreformak gorabehera, gaitasun ekonomikoa murriztearen edo galtzearen ondorioz, errenta ordaintzen ez dela-eta utzarazpena jotzen da askotan.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Udalen Elkarteak bat datoz azaldutako diagnostikoan. Halaber, prozedura judizialean detekta daitezkeen urrakortasun-egoerei zein Justizia

Octavo.- En este sentido, el Real Decreto-Ley 8/2011, de 1 de julio, elevó el nivel de inembargabilidad en el caso de deudores que hubieran perdido su vivienda habitual hasta el 150% del Salarlo Mínimo Interprofesional, aumento del 50% al 60% del valor de tasación el límite mínimo para la adjudicación del inmueble y redujo al 20% el depósito exigido para tornar parte en la subasta.

Por otra parte, el Real Decreto-Ley 6/2012, de 9 marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios aprobó el denominado "Código de Buenas Prácticas", y la Ley 1/2013, de 14 de mayo, de medidas para reforzar la protección a los deudores hipotecarios, reestructuración de deudas y alquiler social, además de establecer la suspensión inmediata y por plazo de dos años de los desahucios de los deudores que se encuentren en una situación de especial vulnerabilidad en los términos previstos en la propia norma.

Noveno.- No hay que olvidar el Servicio de Mediación Hipotecaria creado por el Gobierno Vasco y la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de viviendas de protección oficial y alojamientos dotacionales de régimen autonómico, que también contempla la situación de las personas que han perdido su vivienda.

Décimo.- Que la situación actual de crisis económica no afecta exclusivamente al mercado hipotecario, sino que extiende sus efectos al arrendamiento de vivienda. A pesar de las sucesivas reformas que han intentado flexibilizar el sector y garantizar la posición de ambas partes, arrendador y arrendatario, la disminución o pérdida de la capacidad económica aboca en muchos casos al desahucio por falta de pago de la renta.

El Consejo General del Poder Judicial, el Gobierno Vasco y la Asociación de Municipios Vascos coinciden en el diagnóstico expuesto y en la necesidad de abordar conjunta y coordinadamente medidas que den respuesta a las



Administrazioak bere jardunean detekta ditzakeen egoerei era bateratuan eta koordinatuan erantzuteko premia antzematen dute. Horrenbestez, lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Lankidetzaz-hitzarmen honen xedea da jarduteko protokolo bat ezartzea. Protokolo horren bidez, hipotekaren bat betearazteko prozeduraren ondorioz zein errenta ez ordaintzeagatik egindako epaiketaren baten ondorioz eragindako utzarazpenetan urrakortasun-egoera berezia kontuan hartzea, hainbat alderdiri erreparatuta: Bankuen Jardunbide Egokien Kodea zein 1/2013 Legea aplikatu behar direla pentsarazten duten elementuak, adinari lotutako arrazoiak, nor bere kabuz moldatzeko gai ez izatea, edota halakotzat jotako edozein arrazoi, Agintaritzaz Judizialaren arabera.

Kasu horietan, Agintaritzaz Judizialak erabakitzen badu udal jakin bateko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea komenigarria edo beharrezkoa dela, eskumena duen erakundeari jakinaraziko zaio bitarteko ahalik eta azkarrenaren bidez, toki-administrazio horrek, egoki irizitako egiaztapenak egin ondoren, dagokion erabakia har dezan. Eta hipoteka-betearazpenetan, baldintzak betetzen badituzte, hipoteka-betearazpenen ondorioz kaltetutakoak bideratzea berriz ostatu emateko ibilbideetara, eta horrelakorik ez balego, Etxebizitza Sailburuordetzari eskatzea babes ofizialeko etxebizitzak zuzenean esleitzea, edota, egoki izanez gero, udalaren zein administrazio autonomikoaren gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eskatzea, dagokionaren arabera, eman beharreko arreta bideratzeko.

Azken finean, helburua da baztertuta geratzeko arriskuan eta urrakortasun-egoeran dauden pertsonen Administrazioen erantzun sentibera eta egokia ematea, indarrean dagoen araudiaren esparruan.

situaciones de vulnerabilidad que pudieran detectarse en el curso de los procedimientos judiciales o por la Administración de Justicia en el desempeño de su labor, por lo que las partes acuerdan firmar el presente convenio de colaboración con base en las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.

El presente Convenio de colaboración tiene por objeto establecer un protocolo de actuación que desarrolle la forma a través de la cual cuando, con motivo de un desahucio derivado de un procedimiento de ejecución hipotecaria o de un juicio por falta de pago de la renta, se observe una situación de especial vulnerabilidad, sea por existir elementos que permitan pensar en la aplicación del Código de Buenas Prácticas Bancarias o de la Ley 1/2013, sea por razones de edad, imposibilidad de valerse por uno mismo o cualesquiera otras que así se estimen, a juicio de la Autoridad Judicial.

En estos supuestos, cuando por parte de la Autoridad Judicial se determine la conveniencia o necesidad de intervención de los servicios sociales de un determinado ayuntamiento, se comunique por el medio más rápido posible al organismo competente para que, previa realización de las comprobaciones que se consideren, la Administración local pueda adoptar la decisión oportuna y en caso de las ejecuciones hipotecarias, si cumplen los requisitos, derivarlas al itinerario de realojo de afectados por ejecuciones hipotecarias y, en su defecto, solicitar la adjudicación directa de viviendas de protección oficial a la Viceconsejería de Vivienda o, en su caso, recabar la intervención de los servicios sociales del ayuntamiento o administración autonómica, según corresponda, procurando la atención debida.

En definitiva, se trata de que las personas en situación de especial riesgo de exclusión y vulnerabilidad se encuentren con una respuesta de las Administraciones sensible y adecuada, en el marco de la normativa vigente.



Bigarrena.- Jarduteko protokoloa

Hitzarmen honi dagozkion ondorioetarako, utzaraztea eragin dezaketen bi egoerak bereizi behar dira:

1.- Ohiko etxebizitzan eragina duten hipotekak betearazteko prozedurak

. Gai baten berri duen epaileak ikusten badu, ordainketa-errekerimendu bat egitean, demanda izapidetzeko onartu aurretik, hipotekaren zordunari ez zaiola informazio garbia eta egiazkoa eman martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsitako Bankuen Jardunbide Egokien Kodean eta maiatzaren 14ko 1/2013 Legean jasotako edukiei eta aurreikusitako aukerei buruz, dagozkion neurriak hartuko ditu zordunari ohar bat helarazteko, arau horiek zein etorkizunean gai horren inguruan egin daitezkeen arauak eragindako oinarritzko elementuak azaltzen dituen. Horrenbestez, hartzaileak egoki irizitako alegazioak egin ahal izango ditu, eta 6/2012 Errege Dekretuan aurreikusitako neurriak eskura izango ditu.

. Hipotekaren bat betearazteko prozedura gauzatzean urrakortasun-egoeraren bat detektatzen bada, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuan, baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presazko neurriak buruzkoan, nahiz maiatzaren 14ko 1/2013 Legean, zorrak egokitzeko, alojera soziala eta hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriak buruzkoan, adierazitako egoeretan sar daitezkeena, edota, oro har, babesik gabe zein gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dakarren egoera detektatzen bada, dagokion udalaren gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie, datu pertsonalak erabat babestuz, Administrazioak arazo hori aztertzeko egin beharreko izapideak egin ditzan, eta, egoki izanez gero, dagozkion gizarte- eta etxebizitza-zerbitzuen jardutea bermatzeko neurriak har

Segunda.- Protocolo de Actuación

A los efectos del presente Convenio, es preciso distinguir entre las dos situaciones que pueden provocar el desahucio:

1.- Procedimientos de ejecución hipotecaria que versen sobre vivienda habitual

. Cuando el Juez que conozca de un asunto observe que, al efectuarse el requerimiento de pago, antes de la admisión a trámite de la demanda, no se ha informado al deudor hipotecario de manera clara y veraz del contenido y posibilidades previstas en el Código de Buenas Prácticas Bancarias aprobado por Real Decreto-Ley 6/2012, de 9 de marzo, y en la Ley 1/2013, de 14 de mayo, adoptará las medidas oportunas para que se remita al deudor una nota comprensiva de los elementos esenciales introducidos por tales normas o cualesquiera otras que pudieran aprobarse en el futuro con relación a la materia de que se trata, a fin de que el destinatario pueda, en su caso, hacer las alegaciones que considere pertinentes y pueda acceder a las medidas previstas en el Real decreto Ley 6/2012.

. Cuando durante la sustanciación de un procedimiento de ejecución hipotecaria se detecte la existencia de una eventual situación de vulnerabilidad que pudiera incardinarse en el ámbito del Real Decreto-Ley 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos, o del Ley 1/2013, de 14 de mayo, de medidas para reforzar la protección a los deudores hipotecarios, reestructuración de deudas y alquiler social, o, en general, una situación de desvalimiento o de riesgo de exclusión social, se dará traslado a los servicios sociales del correspondiente ayuntamiento para que, con estricto respeto a la protección de datos de carácter personal, la Administración pueda realizar las gestiones necesarias para analizar la problemática y, en caso de que sea procedente, adoptar las



ditzan.

. Botatzeko garaian egiaztatzen bada urrakortasun-egoera berezia edo babesik eza, gaiaren berri duen epaileari jakinaraziko zaio berehala, eta hark erabakiko du bertan behera uztea agintzea egoki ote den, gizarte-zerbitzuek, gertatutakoaren jakitun, egoeraren behin-behineko balioespena egiteko eta dagokion jarduerari ekiteko behar duten epea izan dezaten.

. Nolanahi ere, jakinarazpena egiaztatu eta egoera aztertu ondoren, dagokion administrazio-sailak hartuko du erabakia. Erabaki hori esku hartzeko proposamen bat izan daiteke, eta Etxebizitza Sailburuordetzari helarazi ahal izango zaio, indarrean dagoen araudiaren arabera babes ofizialeko etxebizitza zuzenean esleitzeko baldintzak betetzen badira, eta/edo Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari, gizarte-laguntzaren bat izapidetzeko. Halaber, ezezkoa eman dezake, gizarte-zerbitzuen jarduera-alorrari dagokion egoeratzat hartzeko baldintzak betetzen ez direla iritzita. Alde batera zein bestera hartutako erabakia organo judizialari jakinaraziko zaio. Aldeko proposamena izanez gero, organo horrek izapide egokiak bideratuko ditu, bi aldeen interes legítimoak babesten direla eta eraginkorrak direla bermatzeko, betiere prozesu-legeak hertsiki betetzen direlarik.

2.- Errenta ez ordaintzeagatik ohiko etxebizitza utzarazteko prozedurak

. Epaietarako zitazio-zedularekin eta demandaren kopiarekin batera, gizarte-zerbitzuen eta etxebizitzaren alorreko zerbitzu eta programei buruzko informazio-orri bat emango da, administrazio autonomikoaren zein tokiko administrazioaren zerbitzu eta programak azaltzen dituen.

. Errenta ez ordaintzeagatik etxebizitza utzarazteko prozeduraren bat izapidetzean

medidas encaminadas para asegurar la actuación de los servicios sociales y de vivienda correspondientes.

. Cuando en el desarrollo de un lanzamiento se constate una eventual situación de especial vulnerabilidad o desvalimiento, se dará inmediata cuenta al Juez que conozca del asunto y que resolverá si procede decretar la suspensión por el plazo imprescindible para que los servicios sociales, advertidos al efecto, puedan hacer una valoración provisional de las circunstancias concurrentes y acometer la actuación que proceda.

. En todo caso, verificada la comunicación y examinadas la situación, el departamento administrativo correspondiente adoptará la decisión que proceda y que podrá consistir en formular una propuesta de intervención, pudiendo dar traslado a la Viceconsejería de Vivienda si concurren los requisitos exigidos por la normativa vigente para la adjudicación directa de viviendas de protección oficial, y/o a la Dirección de Servicios Sociales, para la tramitación de alguna ayuda social, o declinar la misma por considerar que las circunstancias no permiten concluir que se trate de una situación que entre en el marco o esfera de actuación de los servicios sociales. Una u otra decisión se comunicará al órgano Judicial, el cual, si la propuesta fuere positiva, procurará adecuar la tramitación para garantizar la tutela y efectividad de los intereses legítimos de ambas partes, siempre con estricto cumplimiento de las leyes procesales.

2.- Procedimientos de desahucio de vivienda habitual por falta de pago de la renta.

. Con la cédula de citación a juicio y la copia de la demanda se acompañará un folleto informativo de los servicios y programas de asistencia social y de vivienda, bien sean de la Administración autonómica o de la Administración local.

. Cuando durante la tramitación de un procedimiento de desahucio por falta de pago



urrakortasun-egoera berezia edo babesik eza detektatzen bada, dagokion udaleko gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie; hartara, datu pertsonalak babesteko neurriak zorrotz errespetatuz, Administrazioak beharrezko izapideak egin ditzan, eta egoki izanez gero, udaleko gizarte-zerbitzuek zein autonomikoek dagozkien neurriak har ditzaten.

. Ez ordaintzeagatik botatzeko garaian egiaztatzen bada urrakortasun-egoera berezia edo babesik eza, gaiaren berri duen epaileari jakinaraziko zaio berehala, eta hark erabakiko du udaleko gizarte-zerbitzuei gertatutakoaren berri ematea egoki ote den, egoeraren behin-behineko balioespena egin dezaten, eta gizarte-zerbitzuen alorrean dagokion jarduerari ekin diezaioten.

Hirugarrena.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren konpromisoak

. Informazio-orriak eta inprimaki normalizatuak paperean eta euskarri elektronikoen egin eta epaitegien esku jarriko ditu, bai eta gizarte-zerbitzuen antolaketari, funtzionamenduari eta eskumenei buruz dagoen informazioa ere.

. Eusko Jaurlaritzari inprimaki normalizatuak helaraziko dizkio, kudeaketa prozesalerako aplikazio informatikoetan sar ditzan.

. Hitzarmenaren babesean egindako jarduketan azterketa estatistikoa bideratuko duen erregistro informatikoa sortuko du.

. Babesik gabe zein gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen buruzko datuak tratatuko ditu, eta udalei emango dizkie, eta behar izanez gero, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, betiere datu pertsonalak babesteko neurriak zorrotz errespetatuz.

de la renta se detecte una situación de especial vulnerabilidad o desvalimiento, se dará traslado a los servicios sociales del correspondiente ayuntamiento para que, con estricto respeto a la protección de datos de carácter personal, la Administración pueda realizar las gestiones necesarias para analizar la problemática y, en caso de que sea procedente, adoptar las medidas propias de los servicios sociales municipales o autonómicos.

. Cuando en el desarrollo de un lanzamiento por falta de pago de la renta se constatare una eventual situación de especial vulnerabilidad o desvalimiento, se dará inmediata cuenta al Juez que conozca del asunto y que resolverá si procede que se dé inmediata cuenta a los servicios sociales municipales para que puedan hacer una valoración provisional de las circunstancias concurrentes y acometer la actuación que proceda en el ámbito de los servicios sociales

Tercera.- Compromisos del Consejo General del Poder Judicial.

. Elaborará y pondrá a disposición de los Juzgados los folletos informativos y formularios normalizados, en papel y en soporte electrónico, así como la información existente sobre la organización, funcionamiento y competencias de los servicios sociales

. Proporcionará al Gobierno Vasco los formularios e impresos normalizados para su inserción en las aplicaciones informáticas de gestión procesal.

. Elaborará un registro informático que permita el estudio estadístico de las actuaciones realizadas al amparo del Convenio.

. Tratará los datos relativos a las personas que se encuentren en situación de desvalimiento o en riesgo de exclusión social y los cederá a los ayuntamientos y, en su caso, al Departamento de Empleo y Políticas Sociales con estricto respeto a la protección de datos de carácter personal.



Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak

. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta lurraldeko epaitegiei helaraziko die gizarte-zerbitzuen egiturari, sareei, antolaketari, funtzionamenduari eta baliabideei buruz eta gizarte-laguntzako programei buruz duen informazio guztia, bai eta babes ofizialeko etxebizitzak zuzenean esleitzeko prozedurari buruzkoa ere.

. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, pertsonal arduradunaren identifikazioa eta harremanetarako datuak (telefonoa, faxa, helbide elektronikoa) emango ditu, udaletako gizarte-zerbitzuek, proposatutako izapideetan aurrera egiteko, kasu bakoitzean hitzarmen honen arabera egin beharreko jakinarazpenetarako.

. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, dagozkion eskumenen alorrean, erantzun azkarra emateko konpromisoa hartzen du, bai eta udaletako gizarte-zerbitzuetatik zein epaitegietatik egindako eskaeren izapideak araudiaren arabera egiteko prozesua arintzeko konpromisoa ere. Halaber, espedientearen ebazpena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, gaiaren berri duen epaitegiari eta dagokion udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Bosgarrena.- EUDELen konpromisoak

. Erakundeko kideek hitzarmen honen berri izatea sustatuko du EUDELeK, eta bertan jasotako konpromisoak gauzatzearren udalen lankidetzaz lortzen ahaleginduko da.

. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta lurraldeko epaitegiei helaraziko die Euskadiko udal guztietako gizarte-zerbitzuen egiturei, sareei eta baliabideei buruz eta gizarte-laguntzako programei buruz duen informazio

Cuarta.- Compromisos del Gobierno Vasco

. Facilitará, a través del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, al Consejo General del Poder Judicial y a los Juzgados del territorio toda la información disponible sobre sus propias estructuras, redes, organización, funcionamiento y recursos de los servicios sociales y programas de asistencia social, así como del procedimiento para la adjudicación directa de viviendas de protección oficial.

Facilitará, a través del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, la identificación y los datos de contacto (teléfono, fax, correo electrónico) del personal responsable a los efectos de las comunicaciones previstas en el presente Convenio que corresponda realizar en cada caso para continuar la tramitación a propuesta de los servicios sociales de los ayuntamientos.

. Se compromete, a través del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, en el ámbito de sus competencias, a dar una respuesta ágil y a acelerar la tramitación conforme a la normativa de las solicitudes remitidas tanto por los servicios sociales de los ayuntamientos como de los juzgados, así como a comunicar la resolución del expediente, al Consejo General del Poder Judicial, al Juzgado que conozca el asunto y al ayuntamiento correspondiente

Quinta.- Compromisos de EUDEL.

. Promoverá entre sus asociados el conocimiento de este Convenio, buscando su colaboración para la ejecución de los compromisos en él recogidos

. Facilitará al Consejo General del Poder Judicial y a los Juzgados del territorio toda la información disponible sobre las estructuras, redes, y recursos de los servicios sociales y programas de asistencia social, de todos los



guztia.

. Alkateak identifikatzea bideratuko du, hitzarmen honetan aurreikusitako jakinarazpenetarako.

. EUDEL ahaleginduko da epaitegiek bidalitako eskaerei udalek berehalako erantzuna eman eta urgentziaz izapidetzeari ekin diezaioten, eta espedientea ixteko ebazpena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta auziaren berri duen epaitegiari jakinaraz diezaieten.

Seigarrena.- Eusko Jaurlaritzaren, toki-erakundeen eta Justizia Administrazioaren arteko komunikazioak

Justizia Administrazioaren eta dagokion toki-erakundearen arteko komunikazioak telefonoz eta posta elektronikoaren bidez egingo dira gehienbat. Udaletako gizarte-zerbitzuen proposamena izapidetu ostean, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunarekiko komunikazioa lehen adierazitako bitartekoen bidez egingo da.

Zazpigarrena.- Informazioaren eta emaitzen konfidentzialtasuna

Eusko Jaurlaritzak eta EUDELe, elkarte horretako kide diren udalekin batera, beren jardueren ondorioz eskura dituzten datu pertsonal eta familiarren konfidentzialtasun osoa bermatzeko konpromisoa hartzen dute, abenduaren 13ko 16/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, xedatutakoari jarraikiz.

Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearenak, xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dute, pertsonen intimitateari buruzko datuak dituzten dokumentuak eskuratzeko gaitasuna interesdunei mugatzeari dagokionez.

Ayuntamientos de Euskadi.

. Facilitará la identificación de las alcaldías a los efectos de las comunicaciones previstas en el presente Convenio.

. Procurará que sus asociados den una respuesta inmediata y una tramitación urgente a las solicitudes remitidas por los Juzgados y comuniquen la resolución que ponga fin al expediente al Consejo General del Poder Judicial y al Juzgado que conozca el asunto

Sexta.- Comunicaciones entre el Gobierno Vasco, los entes locales y la Administración de Justicia

Las comunicaciones entre la Administración de Justicia y el correspondiente ente local, se efectuarán preferentemente por conducto telefónico y electrónico, una vez tramitada la propuesta de los servicios sociales de los ayuntamientos, la comunicación con el departamento competente del Gobierno Vasco se realizará por los medios antes

Séptima.-- Confidencialidad de la información y de los resultados

El Gobierno Vasco y EUDEL, junto con sus municipios asociados, se comprometen a garantizar la total confidencialidad de los datos personales y familiares a los que tengan acceso como consecuencia de las actividades realizadas, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley orgánica 16/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal

Igualmente se comprometen a observar lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común, en lo que se refiere al acceso limitado a los propios interesados en relación con los documentos que contengan datos referentes a la intimidad de las personas.



Zortzigarrena.- Hitzarmena gauzatzeko gastuak

Hitzarmen honek ez dakarkie gasturik alderdi sinatzaileei; izan ere, Justizia Administrazioaren, EAEko Administrazioaren eta toki-administrazioen arteko koordinaziorako formulak egitea du helburu, eta alderdien betebeharrak bakoitzaren eskumenen ohiko garapenean txertatuta daude. Hitzarmen honetako klausulak betez eta bakoitzak kudeaketa ekonomikoari dagozkion arauen arabera egin beharreko jardueren kostuak beren gain hartuko dituzte hitzarmen hau sinatu duten aldeek

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren jarraipen-batzordea

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearenak, 6.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, hitzarmen honen gauzatzea eta aplikazioa zaintzeko eta kontrolatzeko eta administrazio-eztabaidei buruzko erabakiak hartzeko organo misto bat sortuko da. Batzorde hori osatuko dute hitzarmen honen alde sinatzaile bakoitzaren bi ordezkariak.

Batzordeak bi hilabetetik behin egingo ditu ohiko bilerak, zerbitzuaren kalitatea bermatzea, disfuntzioak zuzentzea eta esperientzia aztertzea helburu hartuta; eta ohiz kanpoko bilerak egingo ditu behar izanez gero, edozein alde eskatuta.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia zuzendariak idazkari gisa jardungo du, hitzarekin baina botorik gabe.

Hamargarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Denbora mugagabez egongo da indarrean hitzarmen hau. Hala eta guztiz ere, bi aldetako batek hitzarmen hau deuseztatu nahi badu, horren berri eman beharko dio beste aldeari,

Octava.- Gastos de ejecución del Convenio

EL presente Convenio no comporta gasto alguno para las partes firmantes, al centrarse en la elaboración de fórmulas de coordinación entre la Administración de Justicia y la Administración Autonómica y Local, insertándose las obligaciones de las partes en el desarrollo ordinario de las competencias propias. Cada una de las partes firmantes del presente Convenio asumirá el coste de las actuaciones que deba realizar de conformidad con el clausulado del mismo y con arreglo a sus respectivas normas de gestión.

Novena.- Comisión de seguimiento del Convenio

Según lo previsto en el artículo 6.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común, se creará un órgano mixto de vigilancia y control de la ejecución y aplicación de este convenio y de resolución de controversias administrativas. Esta comisión estará integrada por dos representantes de cada una de las partes firmantes del presente convenio

La comisión se reunirá de forma ordinaria cada dos meses con el objeto de garantizar la calidad del servicio, corregir disfuncionalidades y analizar la experiencia; y con carácter extraordinario cuando fuera necesario a petición de cualquiera de las partes

Actuará como secretario, con voz pero sin voto, la persona que ejerza la Dirección de Justicia del Gobierno Vasco.

Décima.- Vigencia del Convenio

La vigencia del presente Convenio será indefinida, si bien cualquiera de las partes podrá denunciarlo poniéndolo en conocimiento de la otra, al menos con tres meses de



hitzarmena indargabetu nahi duen eguna baino hiru hilabete lehenago, gutxienez.

antelación a la fecha en que se deseara dejarlo sin efecto.

Hamaikagarrena.- Izaera juridikoa

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta bertan ezarritako klausulen arabera izango da. Klausula horietan adierazi gabeko alderdietan, berriz, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoari jarraituko dio.

Undécima.- Naturaleza Jurídica

El presente convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por las cláusulas establecidas en el mismo, y, en su defecto, por lo regulado en el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de contratos del sector público.

Hamabigarrena.- Hitzarmen suntsiaraztea

Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa izango da bertan ezarritako edozein betebeharrak eta/edo klausula ez betetzea aldeetako batek, bai eta gai horretan indarrean dagoen araudia ez betetzea ere. Horrelakorik gertatuz gero, gainerako aldeek hitzarmena suntsiarazteko eskubidea izango dute; horrenbestez, eragindako eskubide guztiak automatikoki baliogabetuko dira, ez, ordea, dagozkien betebeharrak.

Duodécima.- Resolución del convenio

Será causa de resolución del presente convenio el incumplimiento por una de las partes de cualquiera de las obligaciones contraídas y/o cláusulas establecidas en él, así como el incumplimiento de la normativa vigente en la materia, lo que facultará a las otras partes para la resolución del mismo, quedando automáticamente anulados todos los derechos derivados, pero no así las obligaciones inherentes.

Eta aurretik azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, eta jasota gera dadin, lankidetzahitzarmen hau sinatzen dute goiburukoan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, y para la debida constancia, se firma el presente convenio de colaboración en el lugar y fecha arriba indicados.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IZENEAN
POR EL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

Fdo.: Margarita Uría Etxebarria

Sin/Fdo.: Félix Azón Vilas

Sin/Fdo.: Manuel Almenar Belenguer

EUSKO JAURLARITZAREN IZENEAN
POR EL GOBIERNO VASCO

Sin/Fdo.: Josu Iñaki Ercoreca Gervasio

Sin/Fdo.: Juan María Aburto Rike

EUEDEL– EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN IZENEAN
POR LA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Sin/Fdo.: Ibone Bengoetxea Otaolea